

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARAKO KUADRILLA

#### **Estaturako gaikuntza duten toki administraziooko funtzionarioentzat gordetako Aiarako Kuadrillako idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea**

Kontuan hartu behar da idazkari-kontuhartzailearen lanpostua bete beharko dela, hutsik baitago.

Estaturako gaikuntza duten toki administraziooko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak hartu ditut kontuan, eta hau

Ebatzi dut

Lehenengoa. Prozedura abiaraztea proposatzeko izenda dadila estaturako gaikuntza duen toki administraziooko funtzionario bat Aiarako Kuadrillako idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, Estaturako gaikuntza duten toki administraziooko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 49., 50. eta 51. artikuluetan jasotako moduetakoren batean.

Bigarrena. Hamar egun balioduneko epea hastea, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik, hautagaiek bete beharreko lanposturako eskaerak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduan eta adierazten diren agiriak erantsita.

Estaturako gaikuntza duen toki administraziooko funtzionario bat izendatuko da, eta lehentasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen Eusko Jaurlaritzak argitaratutako merezimen-  
duen azken baremo orokorraren arabera ezarriko da lehentasuna egoera bakoitzean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da idazkia.

Hirugarrena. Izangaien lehentasun ordena ezarri ondoren, eta Aiarako Kuadrillak izendapena hurrenkera horren arabera egitearen aldeko txostena eman ondoren, izangai bakoitzari eskatuko zaio aurkez dezala destino duen toki erakundearen aldeko txostena eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak, hamar egun balioduneko epean eta aipatutako artikuluen arabera.

Laugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du Estaturako gaikuntza duten toki administraziooko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52. eta 53. artikuluetan xedatutako prozedurak.

Bosgarrena. Udalbatzari ebazpen honen berri ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

Seigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak:

Izena: idazkaria. 3. kategoria.

Lan harremana: estaturako gaikuntza duen funtzionarioa.

Eskala: estaturako gaikuntza.

Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzailetza.

Azpitaldea: A1.

Destino-osagarria: 26.

Berariazko osagarria: 29.368,73 €.

Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun data: 2011/05/05.

Arespalditza, 2025eko martxoaren 5a

*Lehendakaria*

*IÑIGO PINEDO VADILLO*

### ERANSKINA

Nik, ..... jaunak/andreak (NANa: .....; jakinarazpenetarako helbidea: .....; telefono zenbakia: .....; Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa: ..... azpieskalakoa; gaur egun ..... lanpostuan dihardu, ..... toki erakunde, ..... (e) k egindako izendapenaren bidez; lanpostuaren jabetze data: ..... / zerbitzu aktibora itzultzeko egoeran –lankidetzaren lanpostuak kentzeagatik / izendapen askeko lanpostua uzteagatik–).

Adierazten dut

Jakin dudala Aiarako Kuadrillako idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela/ez duela titularrak betetzen, eta behin-behineko izendapenaren bidez, zerbitzu eginkizunen bidez edo zeregin pilaketagatik betetzeko aukera dagoela.

Betetzen ditudala lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez, hau

Eskatzen dut

Aiarako Kuadrillako idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behineko izendapenaren bidez, zerbitzu eginkizunen bidez edo zeregin pilaketagatik (ezabatu soberan dagoena), betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honako hauek eransten ditut:

- NANaren fotokopia.
- Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.
- Metaketako postua eskatuz gero, zereginen pilaketengatiko izendapenik ez dudala adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

....., 20.....(e) ko .....aren .....(a).

Sinadura: .....